



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

2022KO ABENDUAREN 22AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Luken Arkarazo Silva
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro

Ez dira bertaratu: Oskar Santamaria Pikabea eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko abenduaren 22an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2022KO URRIAREN 13KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2022ko urriaren 13ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO AZAROAREN 22TIK ABENDUAREN 16RA (2022/1126-2022/1215).



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Alkatetzak 2022ko azaroaren 22tik abenduaren 16ra bitartean (2022/1126-2022/1215) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2023KO AURREKONTU PROIEKTUA HASIERAZ ONARTZEA.

Beñat Larrañagak 2023ko aurrekontu proiektuari buruzko azalpenak emateko honako testua irakurri du:

“Ordenantza fiskalen proposamena aurkeztu genuenean azaldutako moduan, pandemiak eragindako ondorio sozioekonomikoak gainditu gabe, Ukrainako gerrak, krisi energetikoa lehertarazi du, eta herritarrok, zentzugabeko gatazka horren emaitza pairatzen ari gara.

Pandemia lehertu zenean, argi izan genuen zerk izan behar zuen gure lehentasuna: kolektibo eta herritar zaurgarrienak babestea eta laguntzea. Estaldura soziala handitzeko apustua egin genuen orduan, eta bide hori jorratzen jarraitzen dugu. Berriz ere, aberastasunaren birbanaketa justuagoa eta zerbitzu publikoen unibertsalizazioa helburu, iaz martxan jarritako hobari sistemari eusten diogu. Era berean, bigarren urtez, gizarte laguntza propioek ere bere lekua izango dute aurrekontuetan, batez ere gure herrira iritsi berri direnei eta bazterketa egoera larrian egon daitezkeen herritarrei urgentziazko laguntza puntualak eman ahal izateko.

Baina 2022a, kudeaketari dagokionez, urte arrunta izan dela esan dezakegu, eta iazko aurrekontuen aurkezpenean aurreratu genuen moduan, XXI. mendeko gizarteak dituen erronkei erantzun diegu tokikotik, Usurbildik. Hor ditugu adibide gisa, zaintzen ekosistema berriarekin emandako urratsak, aniztasuna modu demokratiko batean lantzeko sortu berri den Aniztasun Kontseilua, trantsizio energetikoaren ildotik ari den energia komunitatea edo burujabe izateko, gure ur propioa kontsumitzeko bideratu dugun inbertsioa. Horretaz gain, gure herri nortasuna sendotuko duen turismo eredu propioaren zimenduak ere jarri ditugu herriko eragile ezberdinekin batera.

Xehetasunetan sartu aurretik, aurrekontu hauen sozializatorako, herritarrekin auzo ezberdinetan 9 bilera egin ditugula gogorarazi nahi nuke. Horretaz gain, oposizioko bi alderdiei ere aurkeztu dizkiegu alde zuzenetik. Azken asteetan izandako harremanen harira, alderdi sozialistak proposatutako hainbat emendakinen inguruan adostasuna lortu dugu eta jasota geratu dira gaur aurkezten dugun proposamen honetan.

2023ko Sarrerei dagokionez, Usurbilgo Udalak datorren urtean 13 milioi pasa euroko aurrekontua izango du: 13.218.200 € hain zuzen ere, iaz baino %2,2 gehiago, 284.200 € gehiago orotara. Azken hamarkadako aurrekontu altuena.

Nagusiki, hiru arrazoi daude igoera hori eragin dutenak. Batetik, Udalak Finantzatzeko Foru Funtساتik iaz baino 332.394 € gehiago jasoko ditugu eta hori izaten da udalon diru sarrera nagusietako bat. Pandemiaren ondorioz, nabarmen gutxitu zen kopuru hau, baina datorren



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

urtean 5.033.2644 € jasoko ditugu, eta arnas-bide garrantzitsua izango da udalon finantziatorako.

Bestetik, enpresa elektrikoek, beraien zerbitzuetan aplikatu dituzten prezioen gorakadaren ondorioz, herriko zutoin eta kableen aprobetxamenduetatik enpresek ordaindu behar duten tasak, igoera nabarmena izango du, iaz baina 215.000 € gehiago.

Azkenik, ez ohiko diru sarrera berezi bat aurreikusten dugu datorren urtean. Hain zuzen ere, Zapategiko eremua garatzeko, GUREAK eta BALFER-ekin lortutako hitzarmenaren ondorioz, hirigintza aprobetxamenduari dagozkion 861.189 €. Gogoratu beharra dago, hasiera batean GUREAK eta ELKAREN arteko proiektua bertan behera geratu zela pandemiaren ondorioz, baina udal gobernuak eta GUREAK azaldutako borondatearen zein elkarlanaren ondorioz, proiektua birmoldatu eta aurrera jarraitzeko modua topatu zela.

Garai hartan egindako lanketa horren ondorioz, besteak beste, Usurbilgo herriak, bere eskura izango du ez ohiko diru sarrera hau, eta modu honetan, inbertsio esfortzu handia izaten jarraituko du udalak, beste behin ere: 1.615.023 €. Iaz bezala, garatuko ditugun hainbat proiektu eta inbertsioekin, dirulaguntzak jasotzeko aukera izango dugula dirudi, baina zuhurtziaz, erabateko ziurtasuna izan arte, horietako batzuk ez ditugu aurrekontuetan jaso.

Bestalde, diru sarren atal honetan nabarmendu behar den beste arloetako bat 2023rako onartutako ordenantza fiskalak dira. Egoera sozioekonomiko zail honetako errealitatera egokitu baina udal zerbitzuen garestitzearen arteko oreka bilatu nahian, KPlaren eta azpiko inflazioaren oso azpitik dagoen %1,5a aplikatzea proposatu genuen udal-gobernutik.

Igoera kezkarria ari dira jasaten beste behin ere argindarraren zein gasaren fakturak. Honek eragin zuzena du urteko kontsumo prezioen batz besteko kalkuluan, eta oro har, produktu gehienengatik garestitzea eragin du. Ondorioz, udal gobernu taldeak erabaki du eta hala onartu urriko osoko bilkuran, %10aren bueltan zegoen KPlaren igoera ez-ohikoa zela aitortzea eta %1,5eko igoera aplikatzea orokorrean. Alde batetik, zerbitzu publikoei eutsi ahal izateko 1,5eko igoera orokor bat, eta, bestetik, krisiaren ondorioz galerak izan dituztenei edo eta, oro har, baliabide gutxien dutenei begirako hobari proposamen sorta zabalari eustea.

Gastuei dagokionez, lehenik eta behin azpimarratu behar da, Zapategiko hirigintza aprobetxamenduari esker, gastuak orekatu ahal izan ditugula eta gure inbertsio ahalmena handia izango dela datorren urtean ere. Ia kapitulu guztiak igo ditugu, eta, nabarmenki, 2. kapitulua, gastu arruntari lotutako partida asko eta asko, argindarrak, gasak eta bestelako materialek izan duten garestitzearen ondorioz, eta legealdi planean jasotako hainbat proiektu estrategiko abiaraziko ditugulako datorren urtean. 4. kapituluak ere igoera esanguratsua izango du, herriko eragileak aintzat hartu eta dirulaguntzen aldeko apustu sendoari jarraipena emanez, kulturako zein zahar egoitzetako elkarleen dirulaguntzak, pandemia aurreko kopuruetara itzuli baititugu.

Kapitulukako edota sailez saileko egitasmo aipagarriak:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Lehen kapituluak, berriz ere, gure aurrekontuan pisu handia izaten jarraitzen du: aurrekontu osoaren %34,82 hartzen du (4.602.570 €), ia pasa den urteko portzentai berbera. Zerbitzu publikoaren alde egiten dugun apustuaren adierazgarri. Aurten, iragarri duten atzeraeraginkortasunezko soldaten igoera aplikatuko dugu eta datorren urteari begira, %3,5eko beste igoera aurreikusi dugu soldatetan, hala izango dela aurreikusten baitu Estatuko Aurrekontu Legeak. Pertsonalgoari dagokionez, urte hasiera berezia izango da, egonkortze legearen aplikazio fasea egokituko baita, eta ondorioz, interinitate tasa modu esanguratsu batean murriztuko den urtearen atarian gaude. Bestalde, Zaintzaren baitan burutzen ari garen lanketaren baitan, etxez etxeko zerbitzu eraberritua kudeatzeko langile baten kontratazioa aurreikusten dugu.”

Alkateak jarraitu du honako azalpenak emanez:

“• Aurrez esan bezala, prezioen garestitzeak, hainbat partiden goraka ekarri du, batez ere eraikinen mantentze lanekin zerikusia dutenak.

• Hainbat zerbitzu eta esleipenen berritzeak, prezioen eguneraketa eta gorakada bat eragingo dute; hala nola, kiroldegiko harrera, begirale eta garbitasun zerbitzuak edo haur eskolako matrikulazio igoerak esaterako.

• Legealdiko planean aurreikusitako egitasmoak aurrera eramateko diru partidak:

- Haur eskolako egokitzeko hausnarketa: 18.000 €
- 650 Usurbil Bizi: 197.000 €
- JFK plan estrategikoaren zein emakumezkoen kirol sustapena: 15.000 €
- Zaintza ekosistema: 420.000 € (inbertsioak barne)
- Emakumeen etxeko dinamizazioa + Aniztasunaren kudeaketa: 35.000 €
- Memoria eta bizikidetzak: 30.000 €

IV. kapituluak ere izango du igoerarik datorren urtean. Guztira, 1.097.663 € bideratuko ditugu dirulaguntza ezberdinetara, aurrekontu osoaren %8,3 Pandemiak eragindako beharrian berriei aurre egiteko abiatutako dirulaguntza deialdi guztiak eta iaz martxan jarritako Gizarte Larrialdietarako laguntza propioa mantentzeaz gainera, kulturgintzan herriko elkarteei bideratutako dirulaguntza lerroa 25.000 €tan handituko dugu, pandemia aurretik zuen kopurura itzuliz. Modu berean, zahar egoitzetako dirulaguntza hitzartuek ere, 10.000 €ko igoera izango dute.

Ezin aipatu gabe utzi, Zumarte Musika Eskola (2.450€), Eskola Kirola/Zirimara (5.800€), Noaua (16.000€) edo Hurbilagorekin (10.000€) ditugun hitzarmenetan bideratutako igoerak.

Bestalde, kapituluaren azterketa honekin jarraituz, azpimarratu behar da 5. kapitulari edota kreditu globalari eutsi izana. 2023an ere 100.000 € gorde ditugu, aurreikusi gabeko gastu edo egitasmoei aurre egiteko. Azken urteek erakutsi digute zein garrantzitsua izan den diru-poltsa horretaz baliatzeko aukera izatea.”

Ainhoa Arrozpidek jarraitu du azalpenak emanez:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

“Eta, amaitzeko, VI.kapituluari erreparatuko diogu, inbertsioen atalari. Aurrez esandako moduan, aurten ere kapitulu honek indar handia izango du, Zapategiko hirigintza aprobetxamenduari esker. Honek ahalbidetuko digu bultzada berezia ematea hainbat proiektu estrategikori, hala nola Zumartegiko ibai-ertza lehengoratzeari, kirol azpiegituren berritzea, trantsizioa energetikoaren bidean urratsak ematen jarraitzea, auzo/herrietan hobekuntzak bideratzea eta Zaintzaren ekosistema egikaritzen jarraitzea.

Honatz, beraz, 2022ko inbertsio nagusiak:

1) Ingurumena

- Zumartegiko ibai-ertza lehengoratzeko. Urte honetan gerakinetik erabilitako diruaz gain, 2023ko aurrekontuetan konpromiso kreditu bat egitea adostu genuen. Hain zuzen ere, 132.000 € jasoko genituela esan genuen, eta orain, emandako hitza betetzen dugu. Proiektu honen bitartez, ibai ertza txukundu eta biziberrituko dugu, herritarrei natur eremu berri bat eskainiz eta herritarrak erriora gerturatuz.
- Natur balioko lurren erosketa: 25.000 €

2) Trantsizio energetikoa.

- Klima aldaketaren erronka globalari, tokikotik erantzuten jarraitzeko inbertsioak, nagusiki, energiaren alorrean. 2021an herriko argiteria publikoa aztertu eta proiektu bat landu zen: batetik, energia kontsumoa nola gutxitu aztertu zen eta, bestetik, efizienteagoak diren sistemak aztertu. Urteka egin beharreko inbertsio batetaz ari gara, hala, iaz abiatutako bideari jarraituz, 2023ko aurrekontuetan 90.000 € bideratu ditugu herriko argiteria berritzeko.
- Ingurumenean jasotako beste partida baten bitartez (42.000 €), Ageri Alden plaka fotoboltaiko gehiago instalatzea, energia komunitateari bultzada bat ematea eta auto partekatua sustatzen jarraitzea aurreikusten dugu.”

Beñat Larrañagak honela jarraitu du:

“3) Udal azpiegiturak

- Haraneko belarra berritzea. 16 urte dira gaur egun ezagutzen dugun Harane eraiki zela. Usurbilgo Futbol Taldeak, momentu ezberdinak bizi izan ditu orduetik hona, baina gaur gaurkoz, bere historiako momenturik osasuntsuenetarikoan dagoela esan daiteke. Denboraldi honetan 18 talde eta 290 kirolari inguru barnebiltzen ditu. Aipamen berezia, azken bi urteetan, emakumezko taldeek izan duten gorakada. Belar artifizialen iraupena, 10-12 urteen inguruan ezartzen dute fabrikatzaileek. Hasierako urteetan erabilera hain intentsoa ez izanaren ondorioz, aldaketa 4-5 urtez atzeratzea ahalbidetu dute, baina momentu honetan, aldaketa beharrezkoa da, baita osasun ikuspegi batetik ere, lesio arriskua ekiditeko.
- Oholtza berria erostea. Herriko festa eta bestelako hamaika ekimen aurrera eramateko, herritarren eskura baliabide egokiak jartzeko konpromisoa du udal honek. Gainera, baliabidea horiek prestatzerako garaian, udal langileen segurtasuna bermatzea gure betebeharra da. Horregatik, oholtza berri bat erosteko erabaki hartu dugu: 50.000 €”



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Alkateak jarraitu du esanez:

“4) Auzo/herriak

- Santuenea: 50.000 €
- Etxealdia: 75.000 €
- Agina:
 - Elutxeko oinez bidea: 240.000 €
 - Eliza Zaharra: 20.000 €
 - Aparkalekua: 22.000 € (2022an beste hainbeste)
 - Semaforoa: 14.000 €
- Kalezar, haur eskolako aldapa urbanizatu: 158.168 €
- Zubieta: 20.000 €

5) Zaintza

- Txirikordako ekipamendua: 157.000 €. Obra bide onean doa eta esleipenak egiteko ordenantzari ere bide eman genion. Datorren urtean, bizitzen hasteko moduan egongo da, beraz, oinarrizko ekipamenduak jartzeko bideratuko dugu inbertsio hau.
- VII. KAPITULUAN, nahiz eta udalak zuzenean ez duen kudeatuko obra, inbertsio bezala uler daitekeen partida bat daukagu. Hain zuzen ere, Kalezarko igogailua: Aldundiak, Matiak eta Usurbilgo Udalak sinatutako akordioaren baitan, 480.000 €-ko inbertsioa egiteko konpromisoa hartu dugu. Zumartegiren kasuan bezala, 150.000 € aurkezten ari garen aurrekontuetan jasoko genituela hitz eman ondoren, konpromiso horri erantzuten diogu. Aurten 150.000€ bideratu ditugu, 2023an beste 150.000€ bideratzeko proposamena jaso dugu eta 2024ari begira, 180.000€ko konpromiso kreditu bat bideratuko dugu.”

Amaitzeko, Beñat Larrañagak adierazi du:

“Inbertsio esanguratsuenak hauek badira ere, bestelako inbertsio txikiagoak ere jaso ditugu aurrekontu proiektu honetan; hala nola, zerbitzu sailari eragingo diotenak, lanbide hastapeneko eskolari, liburutegiko zein Sutegiko beharrei edota udaleko ordenagailuak berritzeko plangintzari.

Urteak aurrera egin ahala, ez dugu baztertzen udalaren gerakina erabiltzeko aukera, beste inbertsio batzuk bideratu ahal izateko. 2022ko likidazioa nola geratzen den itxaron behar, norabide honetan, erabakiren bat hartzeko. Hortaz, garaia iristean, aurrekontuari kreditu txertaketak egitea ez dugu baztertzen.”

Jarraian, Josune Urkolak beraien iritzia azaltzeko testu hau irakurri du:

“Aurrekontu hauek irudikatzen duten Usurbil ez dator bat guk hainbat urteetan proposatu dugunarekin.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

EAJrentzat usurbildarren egungo eta etorkizuneko beharrak bermatzea da aurrekontuen helburua. Udalerri iraunkorra, ingurumena zaintzen duena, soziala eta ekonomikoki egokia eraikiko duena. Horretarako urteko aurrekontuak izaten dira proiektuak gauzatzeko ezinbesteko tresna, zeren bertan jasotzen ez dena ez da gauzatuko edota beharrezkoak izan daitezkeen lehen urratsak ere ez dira emango.

Aurten ere EAJK egin ditu ekarpenak, aurkeztu zaizkigun aurrekontuak aberastuko lituzkeena eta usurbildarren bizi kalitatea hobetuko lukeena, besteak beste:

- Landa eremuan: komunikazio digitala hobetzea, herri bideen egoeraren diagnostia egitea, sakabanutako izendapen sistema berrantolatzea, e.a.
- Santueneako zubi berri bat.
- Barne azpiegiturak herri barruko komunikazioa hobetzeko.
- Etxealdia eta Kale nagusiaren egokitzapena.
- Kanpoko igerilekuak.
- Frontoia.
- Eta..... aurreko urteetan eskatutakoak: Padel pistak, Santuenea-Zubieta bidea, Askatasuna plazako aparkalekuak eta bizikidetzeta plana.

Gure proposamenak ez dira aintzat hartu ere egin, batzuk 2020ean onartuak izan ziren eta egun oraindik burutu gabe daude.

Bukatzeko, aurrekontuen dokumentazioari buruz, aurrekontua berari dagozkionak gero eta gutxiago aurkezten zaizkigu, badakigu espediente osoa eskuragarri dagoela (hala modun), baina minimo batzuk uste dugu bete beharrezkoak direla, aurten ez dugu jaso ezta memoriarik ere, non jaso behar liratekeen aurkezten diren aurrekontuen nondik norakoa eta zergatia.

Beraz, guk aurrekontu hauei ezetz esango diegu.”

Jarraian, Patxi Suárezek adierazi du krisiaren aurrean daudela, batez ere prezioaren aldetik. Bestalde, balioan jarri nahi izan du, batetik, aurrekontuen gizarte zama, uste baitu egokiak direla eta, bestetik, udal gobernuaren jarrera bere ekarpenetako hainbat proposamen onartzeko. Beraien aurrekontuak izan ez arren abstenitu egingo dela esan du.

Beñat Larrañagak esan du, Josune Urkolak aipatu duen banatu gabeko dokumentazioaren harira, gutzia eskuragarri dagoela eta zerbait eskatu den aldiro eskura jarri dela.

Alkateak esan du beti aipatu izan dutela aurrekontuen dokumentazioa oso-oso mardula dela eta guzti-guztia ez dela bidaltzen. Berak ulertzen duela dio bidali beharrezkoa bidali dena dela. Hala ere, Josune Urkolari eskatu dio adierazi dezatela zer nahi duten eskuratu beraien lanerako, nahiz eta Beñatek esan duen bezala, aurrekontuen espedientea edonorentzako ikusgai dagoen.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Kontu-hartzaileak adierazi du aurreko kontu-hartzailea zen Xabier Olanori galdetu ziola horrelakoetan ze dokumentazio banatzeko ohitura zegoen eta honek erantzun omen zion excel moduko bat egiten zuela departamentuetako gastuak banatuta eta inbertsioetarako taula bat, eta hori banatzen zuela batzordean. Udal honetako aurrekontuak 100 orri inguru dituela eta zehaztu du ez zaiola inongo momentutan eskatu espediente osoa aurkeztea.

Josune Urkolak adierazi du aurten lehenengo aldia dela memoria ez dela banatu. Espedientea hain potoloa izanda eta kontuan izanda zein momentutan dauden, agian dokumentuak partekatzeko gune bat egon beharko lukeela uste du.

Idazkariak azaldu du digitalki eskuragarri jartzeko bidea bilatu behar dutela, eta lanketa horretan badabiltzala zehaztu du.

Beñat Larrañagak, beste alderdiek egin dituzten ekarpenen harira, Patxiri eskerrak eman dizkio edukitako jarreragatik, bistan dela dio hainbat gauzetan ez daudela ados baina azken bi urtetan lortu dutela dio hainbat kontu landu eta adostasunetara iristea.

Harrigarria dela dio aurrekontu hauen aurrean alderdi batek eta besteak hain irakurketa ezberdina egitea. Patxik adierazi duen moduan ukazina dela dio aurrekontu hauek duten karga soziala eta zaugarrienak direnen egoera ekonomikoari begira egindakoak direla. Herriko talde eta elkarte ezberdinei egiten zaien ekarpen ekonomikoa ere azpimarratu du beraien jarduna eta herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak aurrera eramanez ahal izateko. EAJk ingurumenari begirako aipamena ere egin duela dio ez direla egokiak adieraziz, baina beraien ekarpenetan ez dagoela bereziki jasangarritasunari begirako neurri esanguratsurik dio.

Beñatek jarraitu du esanez EAJk egin dituen ekarpen horiek zehaztapenik ez dutela, planifikazio ekonomikorik ez dutela eta aurreko batean esan zuten moduan, Olentzerori gutun bat diruditela.

Ados egongo balira ere, ezinezkoa izango litzatekeela dio EAJk aipatzen dituen egitasmo guztiak urte bateko aurrekontuarekin aurrera eramatea, horregatik diote proposamen hau ez zaiela serioa iruditu eta ez zela ere bozkagarria.

Benetan hain txarrak iruditzen bazaizkie EH Bilduren aurrekontuak osoko emendakin bat aurkeztu zezaketela esan die Beñatek.

Alderdi sozialistari bezala, EAJri ere gonbita egin zitzaiola azpimarratu du mahai baten bueltan eseri eta, Ogasun batzordearen aurretik, izan zitzaizketen ekarpenak partekatu eta adostasunen bat bilatzeko saiakera egiteko. Aipatutako gonbidapena ez zutela baliatu esan du eta gogorarazi du Ogasun batzordean horrelako eztabaida izan zutenean berriz ere prest



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

agertu zirela esan du astebeteko epean proposatutako neurri baten baitan proposamen konkreturen bat ekarriko balute emendakin gisa bozkatzeko. Kasu honetan ere astebeteko epe horretan ez dutela EAJren berririk izan adierazi du.

Batzarkideek Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2023 urtean indarrean izango den Aurrekontua osatzeko garaia iritsita, udal gobernu taldeak bere aurrekontu proposamena aurkeztu zuen azaroaren 17ko Ogasun Batzordean. Egun berean gonbidapena luzatu zien beste udal taldeei, egoki ikusten zituzten ekarpenak egin zitzaizten.

EAJ-PNV eta PSE udal taldeek idatziz egindako ekarpen eta zuzenketak eztabaidatu dira. Abenduaren 14ko batzordean PSEren 8 emendakin onartu, 3 ukatu eta 6 bertan behera utzi dira, guztira 32.100€ko moldaketak gauzatu.

Onartutako emendakinekin eta legezko txosten guztiak jaso ondoren, osatutzat eman zuen Aurrekontu proiektua udal gobernu taldeak eta abenduaren 14ko Ogasun Batzordean honako diktamen edo irizpena luzatu zaio Udalbatza Osoari, batzordea osatzen duten kideen gehiengoaren oniritziarekin, 3 bozka alde (EH Bildu) eta 2 abstentzio (EAJ eta PSE).

Irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

1.- 2023 ekitaldirako Usurbilgo Udalaren Aurrekontu proiektua hasieraz onartzea, guztira 13.218.200 €urokoa eta kapituluka honako laburpena duena:

SARRERAK		2023
I	Zerga zuzenak	3.080.675,00
II	Zeharkako zergak	500.000,00
III	Tasak eta besteak	2.655.662,00
IV	Transferentzia arruntak	6.029.874,00
V	Ondare sarrerak	24.800,00
	Sarrera arruntak:	12.291.011,00
VI	Inbertsioak besterenganatzea	873.189,00
VII	Kapital transferentziak	54.000,00
IX	Finantza pasiboak	0,00
	Kapital sarrerak:	927.189,00
	SARRERAK GUZTIRA	13.218.200,00
GASTUAK		2023



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

I	Langile gastuak	4.602.570,00
II	Ondasun eta zerbitzu arruntak	5.444.944,00
III	Interesak	50.000,00
IV	Transferentzia arruntak	1.097.663,00
V	Kreditu globala	100.000,00
	Gastu arruntak:	11.295.177,00
VI	Inbertsio errealak	1.465.023,00
VII	Kapital transferentziak	203.000,00
VII		
I	Finantza aktiboen aldaketa	0,00
IX	Finantza pasiboen aldaketa	255.000,00
	Kapital gastuak:	1.923.023,00
	GASTUAK GUZTIRA	13.218.200,00

SUPERABITA: 21/2003 F.A.: 14.6 artikulua:

	Sarrera arruntak: (1)	12.291.011,00
	Amortizazio gastuak: (2)	255.000,00
	Gastu arruntak: (3)	11.295.177,00
	Superabit arrunta = (1) – (2) – (3)	740.834,00

2.- Hasieraz onetsitako Aurrekontua jendaurrean jartzea 15 eguneko epealdian Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiotelarik.”

Bozketa honela izan da:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurka: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- 2023-2025 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.

Alkateak adierazi du Dirulaguntzen Plan Estrategiko berri honek 2023an lerro ezberdinetan ia 840.000 euro banatzea aurreikusten duela. Jarraian, alorrez alor hainbat lerro nabarmendu ditu.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Beñat Larrañagak zehaztu du 2024ean eta 2025ean urteko eranskinak onartuko dituztela. Hala ere, planean jasota geratzen dela dio urtean zehar esanguratsua ez den aldaketaren bat egin beharko balitz alkate dekretuz bideratu ahal izango dela.

Batzarkideek Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koa, bere 8.1 artikuluan ezartzen du dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten Herri Administrazioetako organoek edo beste edozein erakundek, alde zuzenetik, hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantzabideak zehaztu beharko dituztela Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean.

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatu artikulua oinarritzkoa dela eta Herri Administrazio guztiek aplikatu behar dutela. Bestalde, legezko mandatua betetzeaz gain, beste zio eta arrazoi batzuk daude agiri hau idaztea aholkatzen dutenak; adibidez, eraginkortasun eta efizientzia mailak hobetzea dirulaguntzako gastu publikoan, sail eta batzorde desberdinen arteko deskoordinazioak saihestea, udalaren laguntza jarduerari buruzko ikuspegi globala edukitzea, herritarrek errazago izatea dirulaguntzak lortzeko bidea, berme handiagoa lortzen baita gardentasunean, irizpide berdintasunean eta lehia librean, bai eta horri buruz udal kudeaketaren arrazoizko erabilera bat lortzea ere, dagokion plangintza globalaz, prozeduren sistematizazioaz eta emaitzak ebaluatuz.

Usurbilgo Udalbatzarrak 2019ko azaroaren 28ko bilkuran, 2020-2022 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2020ko urtarrilaren 30ean.

Aipatutako planaren indarraldia amaituko denez, hurrengo hiru urteetarako indarraldia izango duen plana prestatu da.

Aurkeztu den Plan Estrategikoan Usurbilgo Udalak sail bakoitzean ematen dituen dirulaguntza programa eta lerro guztiak jasotzen dira, bakoitzean ondorengo aspektuak zehaztuz:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Diru-laguntzaren modalitatea.
- Nori dagoen zuzendua programa edo lerroa.
- Zenbatekoa.
- Aurrekontu aplikazioa.

2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aztertu eta gero, Ogasun Batzordeak, abenduaren 14ean egindako bilkuran aldeko bozka EHBildu (2) eta PSE (1), abstentzioak



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

EAJ (1), egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: 2023-2025 epealdirako Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

BIGARREN: Onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bozketa honela izan da:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- 2023KO PLANTILLA ORGANIKOA HASIERAZ ONARTZEA.

Beñat Larrañagak adierazi du urtero bezala aurrekontuekin batera onartu behar izaten direla plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda.

Jarraian, bi aipamen berezi egin ditu, batetik, jubilatutako langileen lanpostuak hutsik deklaratu direla eta, bestetik, etxetik etxera bi lanpostu zituztela esan du, horietako bat amortizatu egin zela dio gizarte zerbitzuetako administrariaren lanpostua sortzeko eta orain beste lanpostua amortizatu beharrean “resignación de recursos humanos” egiten dela zehaztu du eta eraikinetako garbitasuneko koordinatzaile lanpostua sortzen dela.

Josune Urkolak galdetu du kontu-hartzailearen lanpostuarekin prozesu bat egin dela.

Beñat Larrañagak erantzun dio kontu-hartzaile lanpostua gaikuntza nazionala dela, eta gaikuntza nazionala duenik ez denez etorri, prozesu bat egin dela zehaztu du. Izendapena Foru Aldundiak egin duela esan du eta gaikuntza nazionala batek eskatu artekoa izango dela.

Idazkariak zehaztu du lehiaketa bidez hornitzen dela eta deialdia urtero egiten dela.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Batzarkideek Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla Organikoa onartu behar da.

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gaia 2022ko abenduaren 14ean egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Itziar Bastarrika
- Abstentzia: Carlos Perez

Beraz, hau guztia kontuan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGO: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2023ko Plantilla Organikoari onespena ematea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, dokumentua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.“

Bozketa honela izan da:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Bastarrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzia: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- 2023KO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Batzarkideek Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126.4 eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

2023rako aldaketak Pertsonal eta Kontratazio Teknikariaren txosten juridikoan jaso dira.

Aldaketa nagusia garbitasun koordinatzaile postuaren sorrera etxez-etxe laguntzaile plazaren amortizazioarekin egitea da. Egoera eta prozedura txostenean azaldu dira:

Etxez-etxe laguntzaileak

80. hamarkadatik hasita Usurbilgo udalak etxez-etxe laguntzaileak izan ditu udal eskumeneko zerbitzu hori eman ahal izateko. Pixkanaka langileen kopurua gutxitzen joan zen eta azkenerako bi laguntzaile geratu ziren, biak ere karrerako funtzionario: Gloria Sanchez eta Kontxi Manso. Bi langile horiek betetzen ez zituzten gainerako etxez-etxe zerbitzuak funtzionario interinoen ordez azpikontraturiko enpresa baten bidez eman izan dira urte luzez.

Etxez-etxe laguntzaile postuaren ezaugarriak honakoak dira:

Izena:	Etxez-etxe laguntzaile
Kodea:	6.4
Izaera:	Funtzionarioa
Taldea/azpitaldea:	E
Eskala:	Administrazio Berezia
Azpieskala:	Zerbitzu Bereziak
Titulazioa:	Eskola ziurtagiria
Lanpostu maila:	8 (Usurbilgo Ordainketa Maila 8)
Berariazko osagarria:	18.363,90
Hizkuntz eskakizuna:	2
Arduraduna:	Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako burua eta gizarte langileak

Gloria Sanchez-en kasuan (...) 2017ko uztailaren 2an baja eman zitzaien udal langile gisa.

Kontxi Mansoren kasuan, 2015. urtetik aurrera langile honen lan jarduna bete ahal izateko arazoak sortzen hasi ziren, izan ere, etxez-etxe laguntza zerbitzuak Usurbilen eta Gipuzkoan gainbehera nabarmena izaten hasi zen. Udalak gero eta zerbitzu gutxiago kudeatzen zituen eta horrek langilearen lan jarduna osatzeko arazoak sortzen zituen (zerbitzu asko ordutegi berdinean gainjartzen zirelako). Hori horrela, eta bere eguneroko 6,5 orduko lan jarduna osatu ahal izateko, kontuan harturik etxez-etxe laguntzaileek ere emandako zerbitzuen artean etxeetako garbitasuna badutela eta bi lanpostuak talde berekoak (E taldea) direla, tarteka hantzen garbitasun lanak ematen zitzaizkion. Lan hauek egin aurretik zegozkion prebentzio formakuntzak emanez. Modu horretara lan egin zen Gizarte Zerbitzuen eta Pertsonal sailaren arteko elkarlanari esker.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

(...)

Horrez gain, azkenaldian Usurbilgo Udala zaintzari buruzko gogoeta prozesu bete-betean dabil eta hain zuzen ere Etxez-etxeko Zerbitzuaren berrantolaketa eta berrikuntza beharra mahai gainean jarri da. Abiatutako prozesu horretatik etorriko diren ondorioak bete ahal izateko gaur egungo egiturak ez du laguntzen.

Garbitzaileak

Idazkaritza sailean kokaturik dauden 6 garbitzaile plaza daude, nahiz eta hainbat murrizketa eta mugapenen ondorioz oraintxe lan jardun ezberdinak dituzten 10 langile ari diren lanean.

2014tik lan jardun osoko postu kopurua berdina izan den arren, azken urteetan garbitu beharreko espazioak handitzen joan dira: Zumarte eraikina handitu da, lehen udalak ohikotasunez garbitzen ez zituen gaztelekua eta larrialdietarako etxebizitzak garbitzen hasi zen, kanpo komuna, etab. Hori gainera hareagotu egin zen COVID-19a tarteko desinfekzioak eta garbitze sakonagoak egiten hasi behar izan zenean.

Garbitzaile taldea koordinatzeko beharra

10 langileko lantaldea antolatu eta koordinatzeko arduradun baten beharra aspalditik identifikaturiko kontua da. Kontuan izan behar da, bulegoetan ez bezala, eraikinen garbiketako edozein langileren baja/opor/norbere gaietarako egun edo lizentziak lantalde osoan eragiten duela, espazioen garbiketa beharra kasu bakoitzean berregokitu egin behar izaten delarik. Gainera, garbitu beharreko eremu asko ezinbestean garbitu behar dira (ikastetxeak, eraikin publikoetako komunak, etab) eta horrek etengabeko berrantolaketa eskatzen du, ia astero egin beharreko lana izan ohi dena.

Lan hori Idazkaritza sailetik egin izan da, pertsonalgoko administrariaren eta teknikariaren artean. Lan modu honek baina, muga asko ditu, bai eraikin, espazioen eta erabilera zehatzen ezagutza eskatzen duelako eta hori bulegotik zaila suertatzen delako, eta baita antolaketa eta koordinazio hori lantaldeko norbaitek egitea delako zentzuzkoena, hau da, eraikinen garbiketa lanak eta errealitatea ezagutzen dituen norbaitek. Bere unean, 2010 urtean, hasitako lanpostuen balorazio prozesuan idazkaritzako organigraman bertan garbitasuneko koordinatzaile baten beharra jaso zen, gerora postua sortu ez arren.

(...)

Garbitasun Koordinatzaile postua sortzea

Ondoren jasotako ezaugarriekin postua sortzea proposatzen da:

Izena:	Garbitasuneko Koordinatzailea
Kodea:	1.13
Izaera:	Funtzionarioa
Taldea/azpitaldea:	E
Eskala:	Administrazio Berezia
Azpieskala:	Zerbitzu Bereziak
Titulazioa:	Eskola ziurtagiria
Lanpostu maila:	8 (Usurbilgo Ordainketa Maila 8)
Berariazko osagarria:	18.363,90



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Hizkuntz eskakizuna:	2 (Derrigortasun Data gabe)
Arduraduna:	Pertsonal eta Kontratazio Teknikaria

Lanpostu berriaren egitekoak (funtzio zerrenda)

LANPOSTUAREN MISIOA :

Udal eraikinen eta udalak garbitzeko ardura duen eraikinen garbiketa lanetarako beharrezkoa den planifikazioa egin, esleitu zaizkion baliabide pertsonal eta teknikoak erabiliz. Bere ardurapean esleitzen zaizkion langileen lanaren jarraipena eta kontrola burutu.

Udal eraikinen garbiketa eta desinfekzioa (udaletxea, epaitegi, zerbitzu sozialak, euskaltegia, KZgunea), eskaintzen diren zerbitzuetarako egoera onean mantentzeko.

LANPOSTUAREN OINARRIZKO FUNTZIOAK

Garbitasun Koordinatzaile gisa:

1. Eraikin garbiketari dagokion plangintza osatu eta lanen banaketa egin erabilgarri dituen data eta baliabideen arabera.
2. Eraikin garbiketari dagozkion zuzendaritza funtzioak bete, lanak banatu eta jardueren jarraipena eraman lanak programatutako moduan betetzen direla ziurtatzeko.
3. Beharrezko material eta ekipamenduak eskoletako mantenu arduradunarekin koordinatzea, bere kasuan.
4. Bere esparru profesionalekoak diren arloei buruzko ikuskapena egin eta hauetaz dagokion teknikariari informatu.
5. Bere ardurei dagozkien txostenak idatzi: lanen jarraipen eta onespenari buruzkoak, eraikin erabiltzaileen erreklamazioen erantzunak, etab.
6. Eraikinen garbiketak planifikatu eta bete, eraikin ezberdinen egutegi eta ordutegi bereziak kontuan hartuz.
7. Garbitasun taldeko lanerako arropa eta oinetakoen erosketak bideratu.
8. Bere arloko material eta baliabideen erosketak proposatu, eskoletako mantenu arduradunarekin koordinatuz.
9. Kanpoko zerbitzuen beharra dagoenean, hauek proposatu eta bere jarraipena egin.
10. Bere sailera bideratzen diren langileen kargu hartu beraien lana gainbegiratzuz eta behar duten laguntza teknikoa eskainiz.
11. Saileko arduradunak hala ezartzen duenean, saileko gainontzeko lanpostuen ordezkapenak burutu, horretarako beharra dagoenean (bajak, oporraldiak, etab.), bere lanpostuaren kategoria eta gaitasunak kontutan izanik.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

12. Langileen hautatze prozesuetan parte hartu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datorrenean.
13. Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

Garbitasunean orokorrean:

1. Komunen garbiketa eta desinfekzioa egin.
2. Lurrak eta paretak garbitu.
3. Eskailera, helduleku eta sarrera-irteerak garbitu eta desinfektatu.
4. Mahai eta aulkien garbiketa egin.
5. Hautsa kendu.
6. Kristal eta azulejuak garbitu eta desinfektatu.
7. Eraikuntza lanen ostean hondakinak kentzen direnean, haien garbiketaz arduratu.
8. Atez-ateko hondakinen bilketa lanen baitan, kontenedoreen garbiketa burutu.
9. Eraikinak itxita daudenean garbiketa orokorrak egin.
10. Zaborrak atera.
11. Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

Hizkuntz Eskakizuna

Eraikin garbitzaileen hizkuntza eskakizuna 1 (betebeharrekoa) da. Etxez Etxeko laguntzailearen kasuan aldiz 2 (betebeharrekoa) da, langileak berak une honetan 1. HE duen arren.

Puntu hau udaleko Euskara Teknikariarekin aztertu da eta aukera ezberdinak begiratu ondoren honako proposamena egin da: postu berriko funtzioak ikusita 2. HE-rekin sortzea baina oraingoz Derrigortasun Datarik gabe uztea, udaleko indizeak horretarako aukera ematen duen heinean. Lanpostuen Zerrendan txertatzeko, hizkuntz eskakizunaren aginduzko txostena eskatu dio Usurbilgo Euskara sailak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. Horretarako, proposamena helarazi dio 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak, dioena betez.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Langile honek erretiroa hartzen duenean (...) lanpostuaren balorapen orokorrarekin batera hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data ezarri beharko da.

(...)

Postuak sortzeko lege baldintzak

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 126. artikulua zera dio:

“2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos: a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.(...)”

Alderdi ekonomikoa

Proposaturiko Lanpostu Maila 8koa da eta Ordainketa Maila ere 8koa du, kontuan hartuz garbitzaileen kasuan Lanpostu Maila 8koa izan arren Ordainketa Maila 7koa dela. Hau da, egokia da izango dituen ardurengatik ordainketa maila koxka bat altuagoa izatea. Hortaz, amortizatzen den postuak eta sortzen denak baldintza ekonomiko berberak dituzte eta hortaz ez dago masa salarrialaren igoerarik.

Gaia 2022ko abenduaren 14ean egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Itziar Bastarrika
- Abstentzioa: Carlos Perez

Beraz, hau guztia kontuan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2023ko Lanpostuen Zerrendari onespena ematea.

BIGARRENGOA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Bozketa honela izan da:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

7.- UDALEKO LAN HITZARMENEN BORONDATEZKO AURRE ERRETIROEN PIZGARRIAK.

Beñat Larrañagak azalpenak eman ditu. Udalhitzan eta Usurbilgo Udaleko lan-hitzarmenean ere jasota dagoela dio aurre-erretiroa hartzen duten langileei jubilazio prima edo pizgarria ordaintzea, eta orain arte Usurbilgo Udalak horrela egin izan duela zehaztu du.

Prima edo pizgarrien kontu hau azken urteetan epaitegietan dabilela eta bereziki uda honetan lehertu dela gaia adierazi du. Udaleko txosten juridikoak dioena eta Eudeletik jasotakoaren baitan, badirudiela dio pizgarri hauek ez direla legezkoak. Bere garaian lan hitzarmena plenoak onartu zuenez, pizgarrien inguruko erabakia ere plenoak hartu behar duela esan du.

Alkateak erantsi du proposatzen dena dela pizgarrien inguruko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioko 92. eta 93. artikulua ez aplikatzea, beraz, ez dira baliogabetzen baizik eta bere horretan uzten dira baina ez dira aplikatzen.

Batzarkideek Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Gai honi buruz Antolakuntza eta Pertsonal Teknikariak egindako txostenak horrela dio:

AURREKARIAK

Usurbilgo Udaleko Langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioko 92 eta 93. artikuluetan arautzen da borondatezko aurre-erretiroaren ondoriozko prima, Udalhitz akordioko 95. artikulua xedaturikoaren baitan.

Berriki, 2022ko azaroaren 9an, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak Udalhitzan 95. eta 96. artikuluetako erreitro aurreraturako pizgarri buruzko urriaren 9ko txosten juridikoa bidali du, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia berriari buruzkoa, bereziki Auzitegi Gorenaren apirilaren 5eko 421/2022 epaia (RC 850/2021). Txosten honen xedea da zehaztea ea funtzionarioen erretiro aurreraturako pizgarriak arautzen dituen *Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan- baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (Udalhitz) 95. eta 96. artikulua* gure arau-sisteman txertatzeko modukoak diren edo Auzitegi Gorenaren 2022ko martxoaren 16ko 344/2022 (4444/2020 EZ), 2022ko apirilaren 5eko 421/2022 (850/2021 EZ) eta 2022ko ekainaren 7ko 682/2022 (2258/2021 EZ) epaietan jasotako doktrinaren eraginpekoak diren; horiek guztiak erretiro aurreratua hartzeagatik primak jasotzeari buruzkoak dira. Txosten horrek ondorio hauek jasotzen ditu:

1) Auzitegi Gorenaren arabera, UDALHITZek eta dagozkion Arrazionalizazio Programek / Enplegu Planek erretiro aurreratuagatik bideratutako primei buruz dituzten aurreikuspenek ordainsari izaera dute, eta ez ditu 30/1984 Legearen 12. xedapen gehigarriak babesten. Funtzionarioen erretiro aurreratua sustatzea arautzen duten



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (Udalhitz) 95. eta 96. artikulua ezin dira txertatu enplegatu publikoen ordainsariei buruzko Estatuko oinarrizko legerian. Auzitegi Gorenak adierazi duenez, "30/1984 Legearen (...) 21. xedapen gehigarriak, erretiro aurreratua sustatzeko neurriak aurreikusi arren, ez zuen erregulazio zehatzik egin neurri horiek ordainsari-izaera izan zezaketen hipotesirako, eta, horregatik, ez du betetzen erretiro aurreratuagatik sari-gehigarria jasotzeko irismen orokorreko lege-arau batean estaldura izateko eskakizuna" (AGren 344/2022 Epaia, 4. OJ).

Ildo berebean interpretatu behar dira UDALHITZ hitzarmenera atxikita ez dauden udalerrietan Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 22.2 artikulua babesean onetsitako Arrazionalizazio Programak.

2) Lehen aipatutako AGEetan jasotako doktrinaren ondorioz, bidezkoa da udalek onartutako negoziazio kolektiboko tresnak ez aplikatzea erretiro aurreratuagatik bideratutako primei dagokienez. Beste hainbeste esan daiteke Arrazionalizazio Programen edukiei buruz. Horrelako tresnak ez aplikatzeak badauka babesa Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren doktrinan, edukiak legez kanpokoak direnean.

Ez aplikatzeko erabakia kasu bakoitzean hurrenez hurren hitzarmen kolektiboak edo Arrazionalizazio Programak / Enplegu Planak onetsi dituzten organoek hartu beharko dute. Gainera, erabakiari EPOETBren 38.3 artikuluan aurreikusitako publizitatea eman behar zaio, bai eta tresna bakoitza (hitzarmena edo arrazionalizazio-programa) onesteko jarraipena ere.

3) Negoziazio kolektiboaren ikuspegitik, eraginpean dauden udalerrietako gobernu-organoen EPOETBren 38.5 artikuluko Batzorde Parekideei jakinarazi beharko diete etete-erabakien berri. EUDEL-ek (Udalhitz hitzarmenaren sinatzailea izanik) beste hainbeste egin beharko du, eta ohartarazi Udalhitz hitzarmenaren 95. eta 96. artikuluetako aurreikuspenak legez kanpokoak direla eta, beraz, ezin direla negoziatu, eta, horrez gain, ez direla aplikatuko.

AZTERKETA JURIDIKOA:

EUDEL-k zirkular bidez udaletxeetara bidali duen txosten juridikoa ikusita, eman beharreko pausoak hurrengo hauek lirateke:

1.- Hitzarmen Kolektiboa onartu duen organo berberak, hau da, Udalbatza Plenoak, ez aplikatzeko erabakia hartu beharko du.

2.- Erabaki horri publikitatea eman beharko zaio.

3.- Jarraipenerako Batzorde Parekidea jakinarazi (Lan hitzarmeneko 7. artikulua arabera batzorde horretako kide izan ahalko da Erakundearen ordezkariak duten sindikatuetako kide bana, duten ordezkariaren arabera boto haztatua izango dute, eta Erakundearen daukaten ordezkari kopuru berbera. Hortaz, kasu honetan bi sindikatu eta udalaren aldetik beste bi kide lirateke).



Usurbilgo Udala

Data: 2022/12/22

ONDORIOAK

Gai hau 2022ko azaroaren 30eko Negoziaketa Mahaiari berri eman zaio. Hortaz, teknikari honek proposatzen du orain Pertsonal Batzordean diktaminatzea eta azkenik eta Udalbatza-Plenoan onartzea, honako erabaki proposamenarekin:

Gaia 2022ko abenduaren 14ean egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Itziar Bastarrika
- Abstentzioa: Carlos Perez

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Usurbilgo Udaleko Langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioko 92. eta 93. artikuluetan arautzen diren borondatezko aurre-erretiroaren ondoriozko primak ez aplikatzea.

BIGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bozketa honela izan da:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.